


BETERRI-AIZTONDOKO ALDIZKARIA



AIURRI

1997ko maiatzaren 30a. 59. Zenbakia. Doan banatzen da.

eskola
txikiem
eguna



→ **ELKARRIZKETA**

EUSKADI GAZTEAKO DANI ARIZALA

→ **KIROLAK**

BILLABONAKO ESKOLA KIROLA
HOGAR EXTREMEÑOREN NEGUKO
FUTBOL TXAPELKETA

KALEBERRI

medikuntza zentrua

**Gida-agiri
eta arma baimenatarako
ikerketak!**

ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera: 18:00tik 20:00etara.
Larunbatetan: 12:00etatik 14:00etara.



Kale Berrri, 8 bajua
20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)
Telf.-Faxa:943-592957





**ELEKTRATRESNAK
SUKALDERAKO ALTZARIAK**



MITZBELTZ

Arteta Kalea, 1 eta 3
☎ 59 12 26 - Faxes: 30 03 45
ANDOAIN

OSKORRI + KEPA JUNKERA + KUKUBILTZO

Oskorriren 25. urtebetetzea
25 Kantu Urte Kontzertua

NOIZ: Ekainak 7, Larunbata

ORDUA: Gaueko 10,30etan

NON: Asteasuko Frontoian

SARRERA DOAN!



Antolatzailea: Asteasuko Udala
Laguntzaileak: Gipuzkoako Foru Aldundia Argia,
Bixkiak, Iturri-Ondo eta Patxine Tabernak.

GALARDI

Udal Haurtzaindegia

ANDOAINGO UDALA



HAUR HEZKUNTZAREN 1. ZIKLOA

- Euskaraz
- 3 maila
 - 1. maila: 0-1 urte
 - 2. maila: 1-2 urte
 - 3. maila: 2-3 urte
- **Jangela:** adinari egokitutako elikadura programa.
- **Ordutegia:** goizeko 7,30etatik arratsaldeko 17,00etara.
- **Kuotak:** gurasoen diru sarrera gordinen arabera.



1997-98 IKASTURTEKO MATRIKULAZIOA

- **Egunak:** Ekainaren 2tik 13ra
- **Orduak:** Goizeko 10etatik eguerdiko 13 etara
- **Non:** Urigain Kultura Etxeko idazkaritzan.
- **Informazio gehiago:** Urigain Kultura Etxean. Tfnoa: 300823

1. **AURKIBIDEA.**
AIURRITARRAK
Joseba Erkizia,
"Eguraldia eta umorea, aldrebés".
2. **TXAPELA ETA MAKILA**
3. **LARRAUL.**
Hezkideren 20. urtemuga.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**
Askagintzaren aldizkari berria
Balio ez duten erradiografia biltzen.
Joxe Juan Gonzalez Txabarri herrian.
7. **ASTEASU.**
Bi erakusketak herrian.
- 8-9. **BILLABONA.**
Kolore guztietako dominak Aiztondora.
Egunpasa euskaraz.
10. **ZIZURKIL.**
Alterofilia taldearen garaipen gehiago.
11. **BASERRIA.**
Purina banatzeko kamioia.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**
Eskola txikiak bizirik.
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**
Dani, gaueko ordu txikietatik Euskadi Gaztera.
- 16-17. **KIROLA.**
Billabonako eskola kirola.
Hogar Extremeñoren neguko futbol txapelketa.
18. **ERRETRATU ZAHARRA**
19. **ARGITALPENAK/LEHIAKETA**
20. **AGENDA**

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32
Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak.
Zuzendaria: Ainhoa Oiartzabal **Maketatzailea:** Eva Garcia **Erredakzioa:** Ainhoa Oiartzabal eta Ainhoa Aiartza **Argazkiak:** Manu Mujika,
Komikia: Iñaki G. Erro **Publizitate arduraduna:** Fernanda Irazu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** IPAR, S.L. Donostia. Lege-gordailua: SS-202/94 ISSN: 1354-0614 **Tirada:** 3.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



EGURALDIA ETA UMOREA, ALDREBES



JOSEBA ERKIZIA ITOIZ

Andoaindar batek aspaldian esan zigun Ernio maiatzero zuritzen zuela. Eta harrezkero urtero ikusi dugu elurra Ernion, gorago edo beherago, urte bolar honetan.

Aurten ere halaxe gertatu da. Negu parterik gehiena uda giroan eta lehor-lehor joan zaigu. Horren agor, mendi eta bide bazter askotan belar eta lur emankorren gainetik hautsa gailendu baita, gurea bezalako inguru hezeetan zeharo arrotza den hauts idorra.

Udaberria iritsi, berriz, eta Santa Krutzak juxtu-juxtu libratu ziren aldarte onaz. Handik aurrera, hondartzarako trasteak prestatzen ari ginenean, haize erauntsiak, euria eta eguraldi malapartatua etorri zaizkigu.

Euskara dela eta, umorea ere eguraldiaren tenorean dabilkigu euskaldunok. Egia da gure hizkuntzak baduela oraindik ere etsai nabariarik. Horra hor Herri Urrats-erako «muga» berpiztua. Noiz arte kontrol lotsagarri eta iraingarri horiek, Gobernuaren ordezkari, gobernadore edo ez dakit nor jauna?

Baina egia da, baita ere, euskaldunok aparteko artea dugula aldamenekoa, hurkoa, senidea... etsaitzat hartzeko.

Abokatu euskaldunak, esate baterako, gaztelera hutsez funtzionatzen ari den eta euskaradunak atzeritartzat hartzen dituen justizia hankamotz hori salatzen ari dira, esku-bide osoz salatzen, gainera. Baina zeharo zilegia den postura horretan, badirudi kontrario nagusiak ez direla euskara bost inporta zaien epaile, fiskal eta abokatu elebakar eta erdaltzaleak, baizik eta abokatuak aldamenean maiz izaten dituzten euskaldun euskaltzale bakarrak: itzultzaileak. Orain dela gutxi gertatu da berriz Bizkaian: abokatu euskaldun batek, itzultzailearen lana eragozteko era guztietako trabak eta trikimailuak erabili ondoren, aurrean zuen epaile erdaldunari pazientzia eskertu («Gracias por su paciencia») eta salatik aldegin zuen lasai-lasai.

Eta azkena UEMAK Oiartzunen egin berria duen jardunaldiaren atarian gertatu da. Udalerrri euskaldunen mankomunitatearen batzarra izan baino egun batzuk lehenago EAJ eta EAko euskara arduradunak gaizkile arriskutsutzat jotzen dituen kartelak ikusi ditugu kalean. Mankomunitatearen alde daudela? Euskaltzaleak direla? Berdin dio horrek. Ortodoxiatik apartatuz gero... badakigu: gezurrezko euskaldun.

Ezagutzen ditugunak, ordea, ez gaituzte engainatuko. Beraz, Josune, Xabier eta itzultzaile anonimoa: har ezazue hirurok nire elkartasuna.

Eta espero dezagun udak eguraldia bere onera ekartzea. Euskaltzaleon artean liskar gutxiago eta adostasun gehiago behar dugu. Bestela negu gogorra izango dugu, hauteskun-deak datoz eta.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jasotzen du.



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskeraren Departamentuaren laguntza jasotzen du.

Txapela eta Makila

OHARRA

Aiurriko harpidetza txartela bete ez duzuenok Aiurriko lagunen bisita edo telefono dela jasoko duzue gutxian. Andoainen Idoia Otamendi eta Igone San Sebastian ari dira harpidetza txartelak betetzten; Billabona, Zizurkil eta Adunan berriaz. Olatz Cenxano ari da lau berean; eta Asteasu eta Larrualetan, azkenik. Lurdes Usandizaga joango zaizue harpidetza txartela betetzeko eskatuz. Beraz, badakizue, pentra ezazue bisita jaso aurretik ustaitetik aurrera Aiurri jaso nahi duzuen ala ez. Batezkoa bada bete ezazue txartela, eta gogoratu aurrean 1.000 pezeta eta datozen urteetan 2.000 pezeta balioko duela Aiurri etxean jasotzekak.


Guk, zuen iritziak, kezak eta proposamenak jaso nahian, Txapela eta Makila izeneko atal berria gehitu diegu aldizkariari. Gauzak horrela, zerbait txalotu nahiez gero, adibidez, bidal ezazue Txapela izeneko atalera zuen iritzia. Hori bai, zuen izen-abizenak (inizialak bestela) eta herriaren izena ere argitaratuko dugu. Zerbait kritikatu nahiez gero, ordea, gauza bera egin behar duzue baina iritzia Makila izeneko atalera bidali behar duzue. Guk, aipatzen duzuen gaiari buruzko argazkia ere argitaratuko dugu. Ah! eta lasai egon, Galdezka atala ez baitugu kendu. Zuen iritziarik ez dugunean gu iritengo gara kalera iritzi bila, orain artean bezelaxe. Beraz, animatu zaitzete ondo dagoenari txapela jartzen eta gaizki dagoenari makilarekin jotzen!



TXAPELA

Andoaingo herritar gisa, duela gutxi bukatu diren Santa Krutz festetan gogo onez parte hartu dut. Herritarrez gain, inguruko eta kanpoko gazte ugari hurbildu da Andoainera; gauean bereziki. Hori dela eta, kaleak asko zikindu ziren. Kaleetako zaborra garbitzen, eta edari nahiz pisa usaina kentzen garbitzaileek egin duten lana ez da txantxetakoa izan. Arrazoi horregatik, festa egun horietan garbitzaileek egin duten lana txalotzekoa dela azpimarratu nahi dut.

K.K.L. Andoain



MAKILA

Andazarrateko gainan zikinkeria asko uzten du jendeak. Asteburuan jende asko joaten da bazkaltera eta egunpasa egitera, eta basura asko uzten du. Zaborra botatzeko zakarrontziak gertu egon arren, jendeak mahai gainean uzten ditu zabor boltsak eta zikinkeria gehiago. Orain, kartel bat jarri dute zikinkeria bertan ezin dela utzi esanez, baina kartel hori jarri gabe ere guztiok zaindu beharreko lekua da Andazarrateko gaina.

M.M. Asteasu

VAC
VAC

HOL-ATZ

VACSOL - WR* TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Elbarena, z/g.
☎ 69 30 63 - 69 07 34
ADUNA

JOSETA

ALTZARIAK

Iskaintza bereziak!!

K... ..

HEZKIDEREN 20. URTEMUGA

Ekainaren 21ean egingo dute ospakizun jaia

Hogei urte luzeetan aritu da, eta egun oraindik ari da, Hezkide eskola gazteak hezitzen eta formatzen. Aisialdiko begiralea, zuzpertzaille sozio-kulturala edota bolondresa izateko ikastaroak antolatzen ditu, eta Larraulgo baserria erabiltzen du ikastaro horiek egiteko. Laurogei lagun inguruk osatzen dute Hezkide eskola, eta ia gehienek borondatez egiten dute lan bertan. Beraz, eta 20 urte hauetan eginiko lana ospatzeko, Hezkideko langile ohiek eta egungo arduradunek ekainaren amaieran dute zita Larraulen.

Larraulgo baserrian hurrekin aisialdian lan egiteko begirale eta zuzendari ikastaroak antolatzen ditu Hezkidek. Guztira, urtero, 90 gazte izaten dira Larraulgo baserrian; 30 pertsonako bi talde begirale ikastaroa egiten eta 30 pertsonako talde bakarra zuzendari ikastaroa egiten. Asteburuetan egiten dituzte ikastaro hauek, eta modu praktikoa batez, haurrak aisialdian nola hezitu ikusten dute. Horretarako, ikastaroko partaide bakoitzak gaiari buruz dakiena eta horri buruzko teoria uztartzen saiatzen dira ikastaro hauetan.

GIZARTE HEZIKETA

Haurrak hezitzeaz gain gizarteko beste alor batzuk hezitzeko beharra ikusi zuten duela hamar bat urte. Gauzak horrela, 3. adinekoekin lan egiteko, kale hezitzaile izateko eta beste zenbait gauza gehiago nola egin jakiteko, bolondresen alorrean zuzpertzaille sozio-kulturala izateko ikastaroa egiten dute urtero. Arrakasta handia du ikastaro horrek, eta ikastaroan bertan lantzeko gaiak berriro egiten dituzte urtero. Azkenik, herrialde azpigaratuetan bolondres moduan lan egiteko ikastaroa antolatzen dute.

25. URTEMUGA, OSPAKIZUN HANDIAGOA

Hogeigarren urtemuga Hezkiden bertan lanean ari diren edota lan egin duten lagunek bakarrik ospatuko duten arren, 25. urtemuga Hezkiden urte horietan guztietan ibili direnek eta Hezkide osatzen dutenek batera ospatuko duten jaia izango da. Izan ere, egungo errealitatea aldatzeko eta gizarte solidario bat eraikitzeko nahian ari da Hezkide lanean, pertsona kritiko eta solidarioak egiteko. Eta asmo zeregin horrek, ospakizun handi bat merezi du, ezbairik gabe.



Ikasleak espresio tailerrean.

HILERO HOGEI
GUTXIAGO
MASKATUZ GERO..





«Bizikide» aldizkariaren aurkezpena.

IX. HAURREN EUSKAL JAIALDIA

**Ekainaren 1ean
ospatuko dute**

Herriko dantzari, txistulari, trikitilari eta koro-ko partaide eta antolatzaileek antolaturiko haurren euskal jaialdiaren helburua, haurrek festa giroaz gozatzea, euskara indartzea, eta bide batez, Euskal Herriko beste taldeekin harremanak izatea da. Horretarako, musika eta dantza emanaldi ugari antolatu dituzte herriko auzo eta kaleetan.

- 11:00 Goikoplazan, Ixiar Orejaren agurra eta jaialdiaren hasiera. Taldeen emanaldia Andoaingo kaleetan.
- 13:30 Gazteak herriko familia eta elkartee-tan banatuko dira bazkaltzeko.
- 16:30 Bekoplazan elkartu ondoren, Goikoplazaraino kalejira.
- 17:00 Jaialdi nagusia Goikoplazan. Talde bakoitzaren emanaldia.
- 18:30 Festaren amaiera. Erromeria Arkaitz Lasa eta Letamendia trikitilariekin.

PROGRAMA PREBENTIBOAK AZTERGAI

**“Bizikide” aldizkaria
kaleratu dute
Askagintzako kideek**

Askagintza taldeak urtero antolatzen duen “Bizirik Bizi” kanpainaren barruan, Askagintzak kaleratu berri duen “Bizikide” aldizkaria aurkeztu dute. Horrezaz gain, drogomenpekotasuna aurrikusteko programa ezberdinen aurkezpena egin zuten.

Bizikide aldizkarian, drogomenpekotasuna aurrikusteko beziketak duen garrantzia azpimarratu egiten dugu. Eta gainera, gaiari buruzko irizki ezberdinak plazaratzen ditugu”, azaldu digu Askagintzako Mari Karmen Rodriguez Ranzek. Horrezaz gain, programa prebentiboak lantzen dituzten hiru proiektu aurkeztu zituzten; Caritasen babesa duen “Discover”, Eusko Jaurlaritzaren babesa duen “Ordago” eta Askagintzaren gabineteko pedagogikoaren “Izadia” programak. Guztiek azpimarratu zuten, drogak dauden mundu batean bizitzen erakutsi behar zaie gazteei. Drogen aurrean, drogak ez hartzea eta horren aurrean beste alternatiba batzuk bilatzea da erakutsi beharrekoa. “Horretarako, eta eskolak abiapuntu gisa hartuta, ikasleak, irakasleak, gurasoak eta gizarte oro bar, prebentzio lan horietarako hezitu, informatu eta gidatu egin behar dira”, adierazi zuten hizlariak. Heziketa horretan, pertsona bakoitzak bere neurrian lana egiteak zuen garrantzia azpimarratu zuten ere hizlariak, besteek egingo dutenaren zain egon gabe.

minikost

**LIBURUDENDA
PAPERDENDA**

Kale Nagusia, 20 - ☎ 59 16 57
ANDOAIN

Gema
Lorategia

LORATEGIEN MANTENUA
KANPO NAHIZ
BARRUKO LANDAREAK

Kale nagusia, 30 ☎ 69 28 98 - Billabona

ARANBURU
agentzia

Aseguruak - Aholkularitza

PROFESIONALAK GARA

Kaleberria, 26 behea
☎ 59 08 14
Fax-a: 59 24 03
ANDOAIN

winterthur

BALIO EZ DUTEN ERRADIOGRAFIK BILTZEN

**Espainiako mugarik gabeko
farmazilariek burutzen duten
kanpaina da**

"Zuretzat erabilgarria ez den erradiografiak emanez, erreza da ume bat salbatzea" dioten lempaean, balio ez duten erradiografiak biltzen ari dira herriko farmaziak. Kanpaina maiatzean hasi zen eta uztaile arte iraungo du.

Balio gabeko erradiografiak urte osoan zehar jasotzen dituzte Ansa farmazian. "Kanpaina orain hasi den arren, jendeak urte osoan zehar ekartzen ditu erradiografiak." Horren adierazgarri, duela gutxi bildu dituzten hogeit hamar kilo erradiografiak dira. Erradiografiak zidar-gatzak dituzte, eta kutsakorra ez den prozesu baten bidez, garza horiek berriro erabili ahal izateko birziklatu egiten dira. Zidar gatzarekin lortzen diren irabaziek, ura garbitzeko, umeen gaisotasunak sendatzeko eta oinarritzko botikak dituzten botika-biltegiei dirulaguntza emateko lain ematen dute. Erradiografiak gain, erabiltzen ez diren botika eta sendagaiak ere biltzen dituzte.

1996. URTEAN BILDUTAKOAK (Espainian)

Bilduriko erradiografiak:	80.585 kilogramo
Lortutako dirulaguntza:	8.687.752 pezeta
Dirulaguntza emaniko proiektuak:	Peruko Caritasi 5.212.352 pezeta eta beste zenbait proiekturi.
Mugarik Gabeko Farmazilariei:	1.737.450 pezeta. Zaire, Sahara, Cuba, Sierra Leona e.a. laguntzeko.



LOURDESERA BIDAIA

Herriko 11 gaixo izan dira bertan

Maiatzaren 23tik 26ra bitartean Lourdesen izan dira herriko 11 gaixo eta Luxia Irulegi eta bere alaba laguntzaile gisa. Horrez gain, maiatzaren 26an herritarrez osatutako bi autobus joan ziren Lourdesera.

Urtero bezala, mundu osoko gaixo eta bisitari ugari hurbildu da Lourdeseko XLIV. erromesaldira. Jendeak fede handia du", azaldu digu Luxia Irulegik. Hamabost gaixoei Lourdesera joateko eskaria egin arren, hamaika gaixo onartu dituzte bidaia hori egiteko, izan ere, gaixo guztiak joatea ezinezkoa da. Gaixoen bidaia herriko elizan biltzen den diruarekin ordaintzen da, baina beraiekin doazen erizainak beren poltsikotik ordaintzen dute egonaldia. "Lourdesera joateko lau egunetako baimena eskatzen dut nire lanbidean eta bidaia nik ordaindu behar izaten dudana arren, oso gustura joaten naiz. Hasieran nire kabuz joaten nintzen, baina azken urteotan osasunaren pastoralara elkartearen bidez joaten naiz: herriko gaixoei laguntzeko. Herriko gaixoak herritarren laguntza behar dute, eta beraz, lan horretarako gazteak animatzea nabiko nuke. Gaixoei asko eskertzen dute emandako laguntza, eta bakoitza bere buruarekin ongi sentitzen da laguntza hori emanez gero".



LEIZARAN
MARKOZKETA TAILERRA S.L.

Kaleberria, 40
20140 ANDOAIN
TEL.: 59 33 39
FAX. 30 01 57

OLEOAK, MARRAZKIAK, AKUARELAK, ESKUZ EGINDAKO ARGAZKI EUSKARRIAK



Madrilgo gona-beherak azaldu zituen Txabarrik.

JOXE JUAN GONZALEZ TXABARRI:

“Abertzaletasunak etorkizunik badu, bertako euskal izaera ondo errotu eta beste herriekiko harremanen ateak irekitzen ditugulako izango da”

Joxe Juan Gonzalez Txabarrik bost urte daramatza Madrilgo kongresuko EAJ-PNVko Diputatu gisa. Bost urte horietan Txabarrik eta bere lau alderdikideek izan dituzten bizipenak, eta azken batean, Madrilen burutzen duten lanaren berri eman zuen Txabarrik. Horrezaz gain, EAJ-PNVren etorkizunerako estrategia eta erabakiak zeintzu ziren adierazi zituen.

Politikako kontuak gauza konplikatua dira, orain inoiz baino gehiago. Izan ere, gehiengo nagusirik ez dagoenez, guztia adostu egin behar da”, azpimarratu zuen Txabarrik.

PARTIDU MINORITARIOAK

“Gizarte kohesionatua gara eta Euskal Herria Europari begira proiektio eta solidaritate gehien dugun herria izan arren, partidu minoritario eta “ijitu” klase bat bezala ikusten gaituzte Madrilen. EAJ-PNV eta abertzaletasunaren inguruan topiko faltsu ugari dituzte. Nahiz eta 1.913. urtez geroztik Madrilen ordezkari izan eta legeak eta konstituzioa errespetatu, gure herriaren alde lan egiten duen alderdi minoritarioak gara Madrilgoentzat. Ez dute kontutan hartzen gure herriko nazioaren ordezkari nagusia dugula”.

ETORKIZUNA

Etorkizunari dagokionez euskal izaera ondo errotzearen eta beste herriekin harremanak gehitu behar diren garrantzia adierazi zuen. Era berean, EAJ-PNVren barruan jarrera koherenteak bilatu behar zirela azaldu zuen: “Familian, lagun artean eta azken batean, herrian EAJ-PNVren baloreak transmitituz egingo dugu aurrera”.

• BARANDA BERRIAK

Doktor Huizi kalean eskailera ugari dago. Horietako asko baranda gabe daude eta zenbait momentutan arriskutsua gertatzen da eskailera horietan behera jaistea. Hori guztia konpontzeko barandak jartzea erabaki du udalak eta herriko beste auzoetan ere baranda gehiago jarriko dituztela aurreratu digute.

• ANDOAINDAR BAT ASTRONAUTA

David Estalayo Santamaría 23 urteko andoaindarra Errusiara joango da ekainaren 13an astronauta izateko asmoarekin. Espainia osoko 4.000 gazteen artean David aukeratu dute, froga asko pasa eta gero, Errusian astronauta ikastaroa egiteko. Davidekin batera sei alemaniar, bi greko, bi txekiar eta emakumezko lituaniar bat hautatu dituzte Errusiako “Izarren hirira” trebatzeko joan eta astronauta izateko entrenamenduak jasotzeko. Hiru astetan zehar hainbat froga ezberdin gainditu behar dituzte hamabi gazte horiek.

• BULARRETAKO MINBIZIA

Osakidetzaren kanpainaren barruan eta masektomizatutako emakumeek antolatutako, bularreko minbizia sendatzeko gaisotasuna garaiz diagnostikatu behar dela azpimarratu zuten joan den astean eginiko hitzaldian. Kanpaina horren barruan, 50-65 urte bitarteko emakumeei mamografiak dohainik egiteko gonbidapena luzatu zaie. Horrezaz gain, beste bi urtera ere beste mamografia bat egin eta aurrekoarekin konparaketa egiteko aukera izango dute. Duela gutxi mamografia egin dutenak ere kanpainaren barruan sartzea gomendatzen dute, bi urteren buruan egingo duten mamografia hori egiteko aukera izan dezaten.

BI ERAKUSKETA HERRIAN

Jende asko joan da erakusketak ikustera

Sei hilabetetan zehar egin dituzten lanak jarri dituzte ikusgai gakorraz eta eskulan ikastaroko ikasleek. Asteasuko 40 lagun baino gehiagok hartu dute parte bi ikastaro haue-
tan, eta ikastaroa berriz egiteko gogoazaldu digute guztiak. Beraz, ea datorren ikasturtean aurten egin dituzten koadro, lanpara, zapiak eta kamisoi politak egiteko aukera duten.

GUATEMALAKO ARGAZKIAK

Bakea eta elkartasunerako fundazioak 30 argazkiko era-
kusketa ibiltari bat antolatu du Euskal Herrian zehar. Astea-
sun izan berri da erakusketa hori, eta argazkiak ikusteaz gain,
Guatemalaren berri ematen zuten azalpenak irakurtzeko au-
kera izan dute herritarrek.



Artelan ugari ikusgai.

SANTAKRUTZ ERMITA KONPONDUKO DUTE

Abuztuan egingo duten auzolandegira etorriko diren gazteek egingo dituzte lanak

U daran gazte auzolandegi ugari antolatzen ditu Eusko Jaularitzak. Gipuzkoan 14 herrietan egingo dituzte auzo-
landegiak, eta herri horietako bat Asteasu izango da. Asteasuko Santakruz ermita konpondu beharko dute auzolan-
degi honetan parte hartuko duten gazteek, eta Es-
tatu Espainiarreko 20-26 urte bitarteko gazteak
izango dira guztiak.



Santa Krutz ermita.

Toki ugari eta ezberdinetako gazteak bilduko
dira Asteasun, etekin ekonomikorik irabazteko hel-
bururik gabe, Elizmendiko Santakruz ermita kon-
pontzeko eta txukuntzeko. Lan honekin Asteasu
herriari zerbitzu bat eskaintzea, eta bide batez, gaz-
teen arteko elkarbizitza eta elkartasuna lantzea lor-
tu nahi dute.

BALORE HANDIKO ERMITA

Nahikoa hondatuta dagoen Santakruz ermitak
balore historiko handia du. Esate baterako, XVI.
mendean eginiko eta egun oraindik zutik dagoen
egurrezko koroa dago bertan. Horrezaz gain, Eliz-
mendin dagoen Santakruz ermitak auzo horretan
Santakruz jaiak ospatzea ekarri du.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación



ZUBi
AUTO ESCOLA

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL

Behar Zanako pilotariak emaitza ezin hobeak lortu dituzte munduko pilota txapelketetan

Irurako Joxi Lopetegik, Zizurkilgo Ander Aranburu eta Imanol Arrutik, Anoetako Maider Mendizabalek eta Billabonako Amaia Agirrek urrezko, zilarrrezko eta brontzezko dominak lortu dituzte Arnedon (Errioxan) jokatu diren munduko pilota txapelketetan. Behar Zanako bost pilotari hauek, 15 pilotari euskaldun gehiagorekin batera, Espainiako selekzio gisa jokatu dituzte hogeita bi urtez behar-rako gazteen arteko munduko pilota txapelketak, eta beraiek lortutako dominak izan dira Euskal Herrira ekarri dituzten bakarrak.



Behar Zanako lau pilotariak

Behar Zana elkarteko Joxi Lopetegik xarez jokatu zuen Irurako Ametsa pilota elkarteko Aitor Artola-rekin batera. Ametsa elkarteko Lander Artola eta Josu Olano ere talde bereko jokalaririk ziren, baina hauek ordezko jokalaririk moduan hartu zuten parte txapelketan. Guztira lau partidu jokatu zituzten, eta finala Frantziako selekzioaren aurka jokatu zuten, Iparraldeko jokalarien aurka, alegia. Emozio handiko partidu hori hiru punturengatik irabazi zuten, 45-42 hain zuten ere. Urrezko domina, beraz, eurek lortu zuten.

IPARRALDEKO JOKALARIK ETSARIK GOGORRENAK

Ander Aranburu eta Imanol Arruti zizurkildarrek eskuz jokatu zuten. Anderrek banakako partiduak



XAREko jokalaririk

KOLORE GUZTIETAKO DOMINAK AIZTONDORA

jokatu zituen, eta Argentinaren aurka irabazi egin zuen arren, Frantziaren aurka galdu egin zuen. Anderren taldekidea zen Unai Olaguek, ordea, Cubaren aurka jokatu zuen semifinalla galdu egin zuen, baina 3. postua lortu zuen Mexicori irabazi egin baitzion. Gauzak horrela, brontzezko domina lortu zuten Unai eta Anderrek, biak ekipo berekoak baitziren.

Imanol Arrutik Iruñeko Paulo Sueskunekin batera jokatu zituen eskuzko partiduak, bi partiduetatik bat irabazi eta beste galdu egin zuten; Frantziaren aurkakoa, hain zuten. Ekipo bereko Ander Agesta eta Haritz Zabalzak, ordea, Frantziaren aurkako finala jokatu eta galdu egin zuten arren, zilarrrezko domina lortu zuten ekipoarentzat.

Amaia Agirre eta Maider Mendizabalek ez zuten partidurik irabazi. Hala ere, beren ekipo Goiatzek eta Maiderrek 3. edo 4. postua lortzeko partiduak jokatu ondoren, 3. postua lortu zuten Argentinari irabaztean.

AURRERA BEGIRA

Emaitza onak lortu dituzte Behar Zanako pilotariak, eta orain, piska bat deskantsatu ondoren, txapelketa gehiago jokatu dituzte. Joxi Lopetegik Euskadiko txapelketa jokatu eta munduko kopako partiduak prestatu beharko ditu orain. Anderrek eta Imanolek ere udaran egiten diren partidu eta txapelketa askotan hartuko dute parte.

BEHAR ZANA ELKARTEAREN URTEMUGA

Maiatzak 31, larunbata

Goizean:

Haurrek eskuzko pilota partiduak jokatu dituzte plazan

Arratsaldean:

17:00 Buruhandiak

17:30 Modalitate ezberdinetako pilota partiduak

20:30 Behar Zanako lagunaren afaria elkartean

22:30 Danborrada eta txaranga

Ekainak 1, igandea

Goizean:

Txistularien diana

11:00 Billabona eta Frantziako selekzioaren aurkako errebote partiduak

12:00 Pilota mundiale-tan parte hartu duten pilotariak omenaldia

14:30 Pilotari eta Behar Zanako lagunaren arteko bazkaria



EGUNPASA EUSKARAZ

Tolosaldeko AEKaren egunpasa ekainaren 14an Billabonan

Andoaingo, Tolosako eta Billabonako AEK-ako ikasle, irakasle eta laguntzaileek elkar ezagutzeko egunpasa egingo dute ekainaren 14ean. Elkarren berri izateaz gain, euskara gogo handiz ari direla erakusteko antolatu dute egunpasa.

Arratsaldeko bostetan emango diote hasiera egunari, eta hiru euskaltegien arteko olinpiadak jokatuko dituzte lehenik eta behin. Ondoren, olinpiadetan ahitu dituzten indarrak berreskuratzeko, txikiteoa egingo dute herriko tabernetan zehar trikitaliak lagundurik. Gaueko bederztiak aldera afaria egingo dute Fleming eskolako parkean. Afariko txartelak herriko tabernetan jarriko dituzte salgai, eta ekainaren 12a da txartelak erosteko azken eguna. Txartel bakoitzak 1.500 pezeta balio du. Afariaren ondoren, sabela ondo beteta, irrintzi txapelketa egingo dute bertan bildutakoen artean.

• 24 ORDU FUTBOLEAN

Intzak Lasai eta Jun Da Bertan koadrilek 24 orduko futbol txapelketa antolatu dute datorren hilaren hasieran jokatzeko. Euskal presoak Euskal Herriratzea eskatzeko xedez antolatu dute txapelketa. Ekainaren 7 eta 8an jokatu dira futbol partiduak, eta bertan parte hartu nahi duten taldeek ekainaren 4a baino lehenago eman behar dute izena Uztargi tabernan. 5.000 pezeta ordaindu beharko ditu talde bakoitzak eta hamar jokalarik osaturiko taldeek jokatuko dute.

Sariak:

Lehenengoa. 50.000 pezeta

Bigarrena: 25.000 pezeta

Hirugarrena: 10.000 pezeta.

Beste hainbat sari hurrengo taldeentzat.

Txapelketa hau herriko zenbait tabernari eta dendarien laguntzari esker burutuko da.

Oharra: Ekainaren 5ean bilera bat egingo da parte hartuko duten taldeen artean. Arratsaldeko 8etan Kultur Etxean



AEK-ko ikasle talde bat

UDAKO MATRIKULAZIOA

Udaran euskara AEKan ikasi nahi dutenek ekainaren 2tik 30era dute izena emateko aukera. Billabonako euskaltegian edota 691964 eta 591704 telefonoetara deituta eman behar da izena. Urtero bezala, euskalduntze, alfabetatze eta EGA ikasteko klaseak emango dira aurretik.

PRESOEN ESKUBIDEEN ALDEKO BARAUALDIA

Aipatu beharrekoa da hiru egunetako baraualdia egin zutela AEKako lagunek presoak Euskal Herrira ekartzearen alde. Horrezaz gain, 60 lagun bildu ziren enkartelada bat eta presoek gutunak euskaraz idaztea izan ziren gaiaren inguruan burutu zituzten ekintzak.

**HILERO BI
PAKETE
GUTXIAGO JANDA...**



ALTEROFILIA TALDEAREN GARAIPEN GEHIAGO

**"Hamabi urtez gorako gaztetxoak kirol
hau ezagutzera eta praktikatzera anima-
tzen ditugu"**

Zizurkilgo alterofilia taldeak emaitza onak lortu ditu Europako eta Espainiako txapelketetan. Taldeko neskek izan dira garaipen gehien lortu dituztenak, izan ere, neska zizurkildar askok egiten du allterofilia. Alterofilia taldeko entrenatzailea den Batis Kortajarenak hamabi urtez gorako gaztetxoak kirol hau ezagutzera animatzen ditu, eta bide batez, astegunetan arratsaldeko bostetatik bederatzietara eta larunbategi goizeko hamaiketatik ordubietara Pedro Mari Otaño eskolako gimnasioan entrenatzen dutela esan digu.

F inlandian jokatu zituzten Europako txapelketetan zilarrezko hiru domina eta munduko errekorra lortu zuen Lurdes Gorostegik hamazortzi urtez beherakoen mailan. Danena alterofilia taldeko Ion Tecedor lasartearrak berriz, laugarren postua lortu zuen txapelketa horretan.

NESKEN GARAIPENAK

Hemezortzi urtez beherakoen arteko Espainiako txapelketak duela gutxi jokatu dituzte, eta Lourdes Regatos hamalau urteko zizurkildarrak 4. postua lortu du. Soledad Galiñamesek ere laugarren postua lortu zuen, baina hemezortzi urtez gorakoen txapelketan. Ainhoa Regatosek eta Lurdes Gosotegik lehenengo postua lortu zuten, eta beraz, Espainiako txapeldunak dira. Horrez gain, bai Lurdesek bai Ionak, Espainia mailako bi errekor hautsi dituzte.



Lurdes Gorostegi eta Ainhoa Regatos

• OPORRETAN EUSKARAZ


Ekainaren 30etik uztailaren 24ra jolasteko, txangoak egiteko eta ongi pasatzeko aukera dute Zizurkil goiko eta beheko haurrek. Hiru urterik hamabi urte bitarteko haurrek har dezakete parte udaleku ireki honetan. Ekainaren 13a da izena emateko azken eguna, eta 5.000 pezeta ordaindu behar dira haur bakoitzeko.

• OLINPIADAK URRIAN

Eskola txikiek gauza ugari egiten dituzte batera, eta ekainan egingo duten jaiaz gain, olinpiadak egingo dituzte urrian. Muskil elkarretea izan da olinpiada horiek antolatuko dituen taldea.

• SEXUALITATE IKASTAROA

Hirusta izeneko kolektiboak sexualitateari buruzko ikastaroak eman ditu Gipuzkoako eskola txiki guztietan. 5. eta 6. mailako ikasleei zuzenduriko ikastaroak izan dira, eta gainera, gurasoekin eta irakasleekin ere landu dute gaia Hirustako lagunek. Gipuzkoako eskola txikietako irakasleek antolatu dute ikastaro hau, eta eskola guztiena den diru kopuruari esker antolatu dute. Aiztondoko eskola txikietakoa haurrek eta gurasoek As-teasuko Pello Errota ikastetxean jaso dute ikastaroa. Haurrek bi egunetako saioak jaso dituzte, eta gurasoek berriz, egun batekoa. Era berean, irakasleekin ere bildu dira Hirustako kideak, sexualitatea modu berean lantzeko eta erakusteko helburuarekin.




PURINA BILTZEKO KAMIOIA

Ingurugiroari, osasunari eta baserri-tarrari onura egiten dion zerbitzua

Baserri askotan geroz eta behi gehiago dago. Behi gehiago izatean etekin gehiago lortzen ditu baserri-tarrak, baina buruhaustek ere ugartu egiten zaizkio. Buruhauste horietako bat ikuiluan sortzen den purina ugaria nora bota izan ohi da, eta arazo horri irtenbidea ematen dio baserri- baserri simaurra eta pixa biltzen ibiltzen den Mendi Nekazaritzako kamioiak .

Simaurra eta pixa biltzeaz gain, purina alegia, zabaldu ere egiten du kamioiak. Izan ere, simaurra eta pixa kantitate egokietan erabiliz gero, ona da lurarentzat. Arazoa purina gehiegi erabiltzen denean sortzen da, lurhari behar duen baino simaur eta pixa gehiago botatzean, alegia. Hori dela eta, purina soberan duten baserri-tarrak kamioiaren zerbitzua



Kamioia purina biltzen

erabilita beharrean dagoen baserri-tarrari ematen dio soberakina. Era berean, baserri-tarrak soroak baserri-tarratik urrun edukiz gero, kamioiak baserri-tarratik sororaino garraiatzen dio purina gero bertan zabaltzeko.

14.000 litroko zisterna du kamioiak, eta hiru minutu nahikoa dira kamioia kargatzeko nola deskargatzeko. Kamioia baserri-raino joatea 1.000 pezeta kostatzen da, eta orduko 5.000 pezeta kobratzen dute. Jose Angel Salegi da kamioiaren arduraduna, eta 989 585905 edota 199462 telefonora deitu berarekin harremanetan jartzeko.

**HILDAKO ANIMALIAK
JASOTZEKO ZERBITZUA**

Ezbehar baten ondorioz hil den animalia jasotzeko zerbitzua ere es-

kaintzen du Tolosaldeko Mendi Nekazaritzak. Baserri-tarrak, orain arte, ahal zuten irtenbidea ematen zioten arazo horri, eta askotan ez ziren irtenbiderik aiposena izaten. Izan ere, hilotza erreka alboan edota lurrazpian lurperatzea ez da batere gomendagarria ez ingurugiroarentzat ez eta osasunarentzat.

Hori dela eta, baserrian hil den aberea jaso, zabortegira eramane eta karez beteriko zulo batean lurperatzen dute. Ehun kilogramotik behera pisatzen duen animalia jaso eta lurperatzea 500 pezeta kostatzen da, eta ehunetik gora pisatzen duenari gauza bera egitea, berriz, 2.000 pezeta kostatzen da. 929 451088 edo 693143 telefonora deitu behar da zerbitzu hau eskatzeko.

GOROSTI
HERBORISTERIA

- ✓ DIETISTA
- ✓ BARATZAKO
- FRUITU NATURALAK
- ✓ INTSENTSUA
- ✓ KANDELAK

Txermin kalea 13, behea
☎ 69 20 56
Billabona

SANATSA

BELARDENDA ETA DIETETIKA ZENTRUA
KONSULTA NATURISTA

Kale Nagusia, 28 - Tfnoa.: 69 40 63 -Billabona

ILLUMBE, S.L.

LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK
Pablo Gorosabel, 48
☎ 65 54 76 TOLOSA
Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa
☎ 59 24 11 ANDOAIN

eskola txikien eguna

Ekainaren 8an ospatuko dute Adunan eskola txikien eguna

Eskola txikiak dira herri txikien etorkizuna. Hori da behintzat Gipuzkoako 24 herri eta auzo txikietako herritarrek, herrian eskola txikiak dituztenek, pentsatzen eta defendatzen dutena. Horren adibide da 18 eskola txikietako ikasleen gurasoek osatzen duten Federakuntza. Haurrari bere herrian kalitatezko hezkuntza eskaintzea eta herri txikien etorkizuna ziurtatzea da elkarte horren helburua, eta hori guztia aldarrikatzeko, aparteko egunpasa antolatuko dute ekainaren zortzian Adunan.

Eskola txikiak biztanle gutxi dituzten herri euskaldunetako eskola publikoak dira. Nekazal giroko herrietako eskolak dira normalean, edota hiri handietako auzo txikieta-koak bestela. Eskola hauetan ez dute ikasle askok ikasten, eta ikasten duten guztiak euskara hutsean ikasten dute. Garai batean bezala, adin ez-

berdinetako haurrak daude klase berean, baina 2 urtetik 12 urte bitarteko haurrak dira guztiak, lehen hezkuntzakoak alegia. "Eskola txiki gehienek lehen hezkuntza osoa eskaintzea lortu dugu aurten. Klase bat osatzeko, gutxienez, 16 haur behar dira, baina eskola askotan ez da kopuru hau betetzen. Klase batean adin ezberdinetako haurrak bilduz lortu dugu klaseak osatzea eta lehen hezkuntza osoa eskaintzea", adierazi digu Gipuzkoako eskola txikien Federakuntzako Jose Luis Albiuak.

EZ DAUDE DIREN GUZ- TIAK, BAINA DAUDEN GUZTIAK DIRA

Jose Luis Albiuak errezildarra Gipuzkoako eskola txikietako gurasoek 1988. urtean sortu zuten Federakuntzako lehendakaria da. Gipuzkoako 24 eskoletako 18k hartzen dute parte Federakuntzan, eta gure eskualdeko bi eskola daude bertan: Zizurkilgo San Millan eskola eta Adunako herri eskola. Federakuntzaren helburu nagusia herrian bertan kalitatezko hezkuntza eskaintzea da, "gurasoek beren haurra herrian bertan ongi hezitzeko aukera izatea, alegia".

Eskola txikien arazoei elkarturik aurre egiteko sortu zen eskola txikien aldeko mugimen- dua

Hori guztia lortzeko nahikoa lan eta borroka egin behar izaten dute eskola txikiak, bai bakarka bai Federakuntzan bilduta: "Hezkuntza sailari gure eskoletan behar diren baliabide pertsonalak nahiz materialak eskatzen aritzen gara egunero-egunero. Izan ere, nahiago dute, diru gutxiago gastatu behar baitute, haurrak eskola handietan biltzea. Ondorioz, eskola txikiak zertxobait ahaztuta dituzte". Eskola bakoitzak kalitatezko irakas-kuntza eskaintzeko behar dituen baliabideak izatea, eskola txiki guztiak mantentzea eta guztietan lehen hezkuntza osoa eskaintzea dira Federakuntzaren nahiak. Eta zenbait asmo edota helburu lortu dituztela aurreratu digute: "Hezkuntza sailak eskola txikiak onartu egin behar izan ditu, eta horren adibide da eskola txikiari laguntza emateko jarri duten PAI delako hori (pedagogia aholkularitza taldea). Horrezaz gain, eskola txikietan 2 urtez gorako ikasleak edukitzea ere onartu egin du".



KALITATEZKO IRAKASKUNTZA

Irakaskuntza erreformaren arabera, ikasle bakoitzaren beharrei egokitutako irakaskuntza eskaini behar da eskolan. Adunako irakasleen esanetan, eskola txikietako irakasleek hori egiteko aukera paregabea dute, "haur gutxi izanik bakoitza oso ongi ezagutzen baitugu, eta bakoitzari behar duena ematen saiatzen gara". Adin ezberdinetako haurrek gela berean batera ikastea positiboa dela adierazi digute, "zaharrenek txikienei erakusten die, eta elkarren arteko harremanak oso onak dira". Gainera, irakasleek nahiago dute gela berean adin ezberdinetako ikasle gutxi edukitzea adin bereko ikasle asko edukitzea baino.

"Eskola txikiek aurrera egiteko beharrezkoa dute kalitatezko irakaskuntza eskaintzea"

Irakasleek lan gehiago egin behar izaten dute eskola hauetan, lan ezberdin gehiago, behinik behin: "Adunako herri eskolan 23 ikasle eta 3 ira-

kasle gaude, egun erdiz etortzen den beste irakasle batez gain. Ondorioz, irakasleok ikasgai ezberdinak eman behar izaten ditugu". Hala ere, irakasleak oso gustura daude Adunako eskola txikian lanean, gainerako eskola txikietan bezalaxe ziurrenik, "luxe bat da ikasle gutxiri eta horrelako herri txiki eta lasai batean irakastea". Gainera, irakasleek gurasoekin eta herritarrekin duten harremana oso ona da, azken finean, eskolak herriarekin duen harremana.

ESKOLA TXIKIAK, HERRI TXIKIEN ETORKIZUNA

Eskola txikiak herriak haurrei, gurasoei, eta oro har, herritar guztiei eskaintzen dien zerbitzua da. Hori dela eta, ahalik eta zerbitzu hobereana eskaintzen saiatzen dira, herriko haurrek beste eskola batean bezalaxe ikasteko. "Era berean, herri txikiek, bizirik egoteko eta etorkizuna izateko, beharrezkoa dute eskola", adierazi digu Jabier Zabala Adunako alkate eta Federakuntzako kideak. Izan ere, herritar gehiago geldituko da herrian beren seme-alabentzako eskola bertan edukiz gero. Ildo beretik, haurrak bere herriarekiko lotura handiagoa izango du bertan hazi eta hezi bada. Horrek guztiak herri txikiak bizirik jarraitzeko oinarriak ezartzen ditu.

ADUNAKO HERRI ESKOLA

Adunako herri eskolak, lehen esan dugun bezala, 23 ikasle eta 3 irakasle ditu, egun erdiz klaseak ematera etortzen den beste irakasle batez gain. Irakasle, ikasle eta ikasle hauen gurasoen arteko harremanak ezin hobekak dira. Guztiak kezkatzen dira eskolaren etorkizunaz, eta orain, datozen urteetan edukiko duten ikasle kopurua da euren kezka nagusia. "Datorren urtean 18 ikasle izango dira eskolan, egungo 6 ikasle eskolatik irten egingo baitira, eta sartu berriz, bat bakarria sartuko da", adierazi digute gurasoek. Eskola arriskuan, ordea, urtero egongo da. Izan ere, gerta daiteke herrian behar adina haur ez jaiotzea edota eskolan inor ez hastea. Hori dela eta, herrian bizi diren bikote gazteak animatzen dituzte haurrak edukitzera, "haurrak baitira eskola honetan falta duguna!".



Adunako ikasleak

EGITARAUA

EKAINAREN 8AN, IGANDEAN Goizean

- Herriko txistulari eta dantzarien emanaldia
- Herri bakoitzeko eskolako ikasleen emanaldiak
- Bertsolarien saioa

Eguerdiari

- Herri bazkaria frontoian

Arratsaldean

- Super bat-eko jokoak
- EUSKARAOKEA
- Trialsin proba

**Egun osoan zehar eskoletako haurrek eginiko lanaren erakusketa eskolan*

M Talleres Mendi S. L.

Burdinezko piezen egintza, planuen arabera.
Pieza hidraulikoak eta neumatikoak.
Mekanizazioa.

Urrietako bidea, z/g. ANDOAIN
☎ 59 04 52 - 59 05 08

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

ARTETA Z/G. 20140 ANDOAIN
☎ 59 04 52 - 59 05 08

Kaletxiki, 6 - ☎ 59 19 58

ANDOAIN

Goiko
OPTIKA

ikasleentzako eskaintza berezia

Arteta z/g
20140 ANDOAIN
☎ 590955

Dani; gaueko ordu txikietatik Euskadi Gaztera



Euskadi Gazteko entzule guztiok duzue ezaguna bere izena eta ahotsa. Ez du argazkietan azaldu nahi, eta honek, buruhauste bat baino eragin dio bati baino gehiagori Dani nolakoa ote den irudikatzean. Eta gainera, Daniren esanetan irratiazen magia eta xarma hizlaria bere ahotsaren arabera imaginatzea da. Lagunen lagun, bere herriko ekintzetan parte hartzaile aktiboa eta oso animosoa da Dani. Beti ametsetan, baina hankak lurrean dituela. Nahiz eta bere argazkierik ez argitaratu, Dani bere entzuleek eta Aiuurriren irakurle guztiak zertxobait gehiago ezagutzeko egin diogu hurrengo elkarrizketa aberratsa.

-Nolatan hasi zinen irratian esatari gisa?

Magisteritzako bigarren ikasturtea bukatu ondoren, udako sustutuzio bat bete nuen, magisteritzako azken ikasturtean irratiko programa bat egiten hasi bainintzen. Orduetik gaur egun arte irratian egin dut lan eta oso gustura aurkitzen naiz.

-Irratiaz gain zein beste komunikabidetan ibili zara?

Nire programa propioa izan bitartean, urtebetez telebistan aritu nintzen lanean. Telebistako esperientziaren ondoren berriro irratira bueltatu nintzen. Hogeita lau orduko programazioa orduan jarri zuten irratian, eta gaueko programa egiten orduan hasi nintzen.

-Gaueko "Ordu txikietan" saioa egin duzu urte askotan. Orain, "Hi bizi haiz hi" saioko esataria zara. Zergatik aldaketa hori?

Aldaketa hori zuzendaritzak erabaki zuen. Zortzi urte saio hori egiten igaro ondoren pena eman zidan programa hori uztea, baina arratsaldeko programarekin gauza eta esperientzia berri asko ezagutu eta probatu ditut. Bi saioek helburu bera izan arren, lan egiteko modua desberdina da. Garrantzitsuena zuek zer komunikatu nahi duzuen jakitea eta hori komunikatzea da.

-Gaueko saiora zein jende motak deitzen zuen?

Gaueko programen entzuleen inguruan topiko ugari entzun dut, eta benetako errealitatea bestelako dela azaldu behar dut. Gaueko entzulea desesperatuta dagoen norbait dela uste du jendeak, eta zorionez, hori ez da egia. Egia da gaueko saioek konfidantza gehiago ematen

duela eta gauaren isiltasunean konfidantza ugari egiten direla.

**"Irratsaioa,
gizartearen eta
irratiaz bestalde
dagoen pertsonaren
arteko zubia da"**

-Zein zen "Ordu txikietan" gaueko saioaren helburua?

Komunikabide batek garbi izan behar du bete nahi duen helburua. Komunikatzea izan da betidanik saioaren helburua. Gonbidatu ezberdinak irratsaioan parte hartuz, ezberdin pentsatu, ezberdin maite edota ezberdin bizi duten pertsona horien berri ematea eta horiengandik ikastea lortu dugu. Esperientzia aberasgarriak izaten dira. Izan ere, pertsona horiek egunkarietako lehen orrietan ateratzen ez diren pertsonak dira, baina errealitatearen eta gizartearen partaide dira. Irratsaioa ni aberasteko eta entzulea aberasteko medioa izan da. Irratsaioa, gizartean gertatzen den eta irratiaz bestalde dagoen pertsonaren arteko zubia da.

-Bada oraindik emakumezkoa zerala uste duenik...

Nire ahotsaren tonuarengatik dela uste dut. Emakumea naizelakoan bada apostuak egin dituenik.

-Ez duzu inoiz argazkietan atera nahi izaten. Zergatik?

Nire argazkia atera ez izanagatik barkamena eskatu behar diet irakurleci. Argazkietan ez ateratzea-

ren arrazoi nagusiak bi dira: alde batetik komunikazioa, imaginazioa landu nahi dut. Izan ere, gutxi komunikatzen gara, imaginazioa gutxi lantzen dugu. Komunikabideek estereotipoak lantzen dituzte, eta nik hori guztia alde batera utzi nahi nuen. Bestetik, irratia magia da. Entzuleak imaginatu egin behar zaitu eta hori asko atsegin dut. Nire askatasuna asko maite dut.

-Jendeak bereizten al ditu zuen lana eta bizitza pertsonala?

Zoritzarrez ez. Euskal Herria txikia da, eta beraz, komunikabide batean ezaguna egiten denak zenbait ondorio txar pairatu behar izaten ditu. Badira tabernara sartzean edota kalean lagunekin egotean bere intimitatea gorde ezin duenik. Denek ezagutzea eta denak gainean izatea ez da atsegina, eta beraz, ni ez naiz damutzen hartu dudak erabakiarekin.


-Hala ere, zure herrian denek ezagutzen zaituzte...

Ni ez naiz ezkututzen. Nire herriko ekintzetan parte hartzen dut eta nire ingurukoek ezagutzen naute. Andoaindarra naiz, Kaletxiki auzokoa, eta bertako festa eta ekintzetan gustura hartzen dut parte. Bi urte dira Adunan bizi naizela eta bertako ekintzetan parte hartu edota nire iritzia eta laguntza ematea gustukoa dut.

***“Hi bizi haiz hi”
saioa entzuten,
gauzak ikasten eta
ongi pasatzen
laguntzen duen
saioa da”***

-Nola definituko zenuke zure buroia?

Askotan hitz egiten dut nire buroiarekin; egunero-egunero auto-kritika egiten diot nire buruari. Egunean zehar egiten ditudan eta bihar eta etzi egingo ditudan gauzen inguruan asko pentsatzen dut. Hitz gutxitan definitzekotan, tipo arrunta baina era berean ezberdina naizela uste dut. Tipo normala baina era berean aberatsa.



Eusko Gasteiz-ko bulegoa

-Zein balorazioa egingo zenuke zure egungo programarena?

“Hi bizi haiz hi” saioa definitu behar harko banu entzuten, gauzak ikasten eta ondo pasatzen laguntzen duen programa dela esango nuke. Pertsona batek agerian ez duena, barruan daukana agerian uztea dugu helburu. Eguneroko programa abentura bat da, eta abentura horretako bidaiaria entzulea da parte hartzen duen momentutik. Garrantzitsuena, bidaiaria hori elkarrekin egitea da: gauzekiko edota pertsonekiko dugun kuriositate hori elkarrekin egitea, hain zuzen ere.

**HILEAN
HAMAR GOZOKI
GUTXIAGO
ZUPATUZ GERO...**



Zabala
Ordukari Bitxitegia

RACER LOTUS
TISSOT SEIKO

Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN
Gudari onparantza, 5 - ☎ 33 23 41 - IBERNANI

BILLABONAKO ESKOLA KIROLA

Diputazioaren eta Udalaren laguntzaz herriko ikastetxeetako umek beste ikastetxeetako umekin kirola praktikatzeko eta euren artean harremanak edukitzeko aukera dute.

Talde bakoitzak bere begiralea dauka eta begirale horiek elkarte ezberdinetakoak dira. Ikasturte honetan 208 umek hartu dute parte 13 begiraleen laguntzaz.

MAILAK ETA ESKOLAK	KIROLAK
BENJAMIN MUTILAK Fleming Ikastetxe Publikoa	Pilota, igeriketa, atletismoa, areto futbola eta saskibaloia
ALEBIN NESKAK Fleming Ikastetxe Publikoa	Minisaskibaloia eta miniboleibola
ALEBIN MUTILAK Jesusen Bihotza Ikastola	Minisaskibaloia eta areto futbola
INFANTIL MUTILAK Herniobea DBH Institutoa Jesusen Bihotza Ikastola	Areto futbola (talde bat) Areto futbola (bi talde)
INFANTIL NESKAK Herniobea DBH Institutoa Jesusen Bihotza Ikastola	Boleibola (talde bat) Boleibola (talde bat)
KADETE NESKAK Herniobea DBH Institutoa	Boleibola (talde bat)



PILOTA ETA MENDIZALETASUNA

Pilotan Amasan jokatu dute eta Behar Zana elkarteko bi pelotari arduratu dira horretaz. Ehun ume inguruk hartu dute parte kirol horretan. Hilabetean behin mendi irteerak antolatu dituzte Billabonako Aizkardi Mendizale Elkarte-koek, eta berrogei umek hartu dute parte.

KURTSO BUKAERAKO PARTIDUEN ZERRENDA

Maiatzaren 31n Eskola Kirolak ikasturte bukaerako partidu hauek jokatuko ditu Arratzainen:

Infantil mutilak

Areto futbola
triangularra
(Goizeko 10:00)

Benjamin mutilak

Areto futbola
(Goizeko 10:30)

Alebin mutilak

Areto futbola
(Goizeko 11:30)

Alebin neskak

Miniboleibola
(Goizeko 11:30)

Infantil neskak

Boleibola
(Eguerdiko 12:30)

Jesusen Bihotza A-Herniobea-
Jesusen Bihotza B

Fleming-Laskorain (Tolosa)

Jesusen Bihotza-Fleming

Fleming-Gainberri (Tolosa)

Herniobea-Jesusen Bihotza

Billabona

**GIPUZKOAKO
TXIRRINDULARI
TXAPELKETA**

**202 txirrindulari
gaztek hartu zuten
parte**

Billabonako Irrintzi txirrindularitza taldeak antolatuta eta eskolarteko kirol frogen barruan, Gipuzkoako txirrindulari txapelketa egin da Billabonan. Eguraldiak lagundu ez arren, jende askok hartu zuen parte. Guztira 202 gazte irten ziren lasterketa horretan, horietako bi emakumezkoak. Txirrindularien kopuru altua zela eta, taldeka lehiatu ondoren, bakar batzuk pasa ziren finalera.

Infantilek 7,2 kilometro korritu zituzten eta finalera iritsi zirenak 12 kilometroko lasterketa korritu behar izan zuten. Alebinek berriz, 2,4 kilometroko lasterketa egin ondoren, 7,2 kilometroko finala egin zuten.

Izen eman zuen txirrindulari kopurua:

- Infantil federatuak 116 txirrindulari.
- Infantil eskolarrak 26 txirrindulari.
- Alebin eskolarrak 60.

Sailkapena

- 1º Infantil federatua, mutila: *Ander Odriozola (Zumaita).*
- 1º Infantil federatua, neska: *Itziar Karro (Donosti Berri).*
- 1º Infantil eskolarra, mutila: *Oskoitz Bonaetxea (La Salle-Azitaín).*
- 1º Alebin mutila: *Ruben Zabaleta (Aitzuri ikastola).*
- 1º Alebin neska: *Nagore Gonzalez (Langile Ikastola).*

Andoain



Aiztondoko futbol taldea

**HOGAR EXTREMEÑOAREN NEGUKO
FUTBOL TXAPELKETA**

**Asteasuko Aiztondo futbol taldeak
lortu du txapela**

Hamabost urte dira Hogar Extremeñoeko partaideek neguko futbol txapelketa sortu zutela. Ordutik gaur egunera herritar eta inguruko gazte ugari bildu da txapelketa horretan futbolean jokatzera. Andoain, Asteasuko eta beste herri batzuetako 43 taldek hartu dute parte aurtengo futbol txapelketan. Finalera iritsi ziren futbol taldeen maila altua azpimarratu digute futbol txapelketaren antolatzaileek: "Eguraldi txarra izan arren, partiduak ikustera hurbildu direnak gustura jarraitu dituzte futbol partiduen gora beherak. Emozio handiko partiduak izan dira", azaldu digu Hogar Extremeñoeko Maciasek.

Finala Asteasuko Aiztondok eta Andoaingo Maiton tabernako taldeek jokatu zuten. Partidua hasi eta berehala Aiztondo aurreratu zen arren, bigarren zatian, Maiton taldearen joku ona zela eta, bana berdindu zuten. Azkenean, penalti bidez erabaki zen txapelduna. Horrela, Asteasuko Aiztondo taldeak Hogar Extremeñoeko neguko futbol txapelketa irabazi du bigarren urtez.

BESTE SARIAK

Txapelketan zehar gol gutxien jaso dituen atezaina:

Jokin Irazu (*Orkatz taldekoa*)

Finaleko jokalaria onena:

Alberto Solana (*Maiton tabernakoa*)

Txapelketako jokalaria erregularrena:

Mikel Eizmendi (*Eizmendi taldekoa*)

S T O P
LIBURUDENDA
TESTU LIBURUAK
AUKERA ZABALA LIBURUTAN
(Ingelesez, frantsesez,
italieraz...)
Agustin Leitza 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03

KIROL JANTZIAK
Litana
Ama Kandida etorbidea, 6 Posta kutxatila 110 ☎ 59 44 47
ANDOAIN

Billabona

Erreboteko jokalaria. 1929.



Ezkerretik eskuinera: Baldomero Lertxundi pilotaria, Antonio Egaña notarioa (?), Julio Albea medikua, Rosendo Garate pilotaria eta Juan Barbe pilotaria.

Errebotean jokatzeko zuten pilotariak dira argazkian ageri diren herritarrak. Argazkia atara zuten egun horretan, urriaren 17an alegia, Iparraldeko Azparne herriko pilotariak etorri ziren Billabonara pilotan jokatzera. Egun horretan, hain zuzen, ez zuten argazkiko herritarrek pilotan jokatu, baina errebotean asko jokatu zuten kirolariak izan direla ezin da ukatu. Argazkian ageri ez den Federiko Urdanpileta ere Billabonako errebote taldeko kide izan zen.

Aipatu beharrekoa da argazkiko hiru pilotari hauen semeek ere jarraitu zutela beren aiten bidea, izan ere, errebotean nahiz zesta puntan ederki asko jokatu zuten. Seme horien se-

meek ere, argazkiko bilobek hain zuzen, bide bera jarraitu dute. Lertxundiren biloba esate baterako, Miamiko Danian frontoian ari da errebotean jokatzeko.

Argazkiko izen-abizenak eta informazioa Behar Zanako Joxean Jauregik eman digu.

Gauza jakina da erreboteak, eta pilotak orohar, izugarritzko garrantzia duela Billabonan. Gazte asko ari dira pilotan jokatzeko eta oso emaitza onak lortzen ari dira, gainera. Baina pilotaz gain, izango dituzue billabonatarrok zuen etxeetan beste gaiak buruzko argazki zaharrak, ezta? Ba badakizue, jarri zaitezte gure kazetariarekin harremanetan zuen argazki zaharrak aldizkarian argitaratzeko. Gure telefonoa 300732a da. Aldez aurretik, eskerrik asko.

ASESORIA
GESTORIA
ASEGURUAUAK

ALDAMA - TAPIA

KALITATEA ETA SEGURTASUNA!!

Kaleberria 22

Telefonoa 59 44 76 - 30 01 67

20140 ANDOAIN

**LERTXUNDI
HARATEGIA**



Alkorta-enea etxea - ☎ 69 18 76


Beterriko Liburua 1.997

Aiurriren irakurle:

Larramendi Bazkunak hasiera eman nahi dio 1997. urteko Beterriko Liburua aukeratzeko bideari. Horretarako, dagoeneko euskal literaturan argitaratu diren liburuen lehenengo uzta egin dugu eta gaurkoarekin batera hurrengo zenbakietan horien berri eman-go dizuegu. Erne, bada, bemendik aurrera, bada non aukeraturik eta!

BERRIRO IGO NAUZU

Xabier Mendiguren Elizegi



Egilea.- Xabier Mendiguren Elizegik haur eta gazte literaturan lan oparoa egin ondoren, liburu luzeagoak idazten hasi zen. Aurretik *Bekatuaren itzala* eleberria idatzi zuen, orain bigarren pauso bat eman du *Berriro igo nauzu* azken eleberriarekin.

Titulua Lizardiren poema batekoa da, Xabier Letek kantu bihurtu zuena.

Historia.

Espainiako espetxe batean 18 urte preso egon eta etxera itzultzeko ordua ailegatu zaion ETAkide baten historia da. Baserrira igotzen denean sentipen eta oroitzapen kontrajarriak etorriko zaizkio bor-bor. Gurasoak, lagunak, alderdiko kideak, etsaiak, damutuak, etab., denak izango ditu ikusmiran. Dena aurkituko du aldaturik. Oso interesgarriak dira familiaren erretratoa eta baserriko bazkariaren narrazioa.

Eta liburu amaieran, hasieran bezala, beste igoera bat topatuko dugu, Txindokiko igoera. Damutu batekin egoera oso txarretan, gaez, argirik gabe, burua bero eta hankak bustirik, bidezidorrean gora egiten duen igoera. Igoera benetan sinbolikoa.

Modu erraz eta alaiean dago idatzia. Elkarriketa erabiltzen du gehien egileak bizitasun hori emateko eleberriari. Irakurleak berehala egiten du bat protagonistarekin. Ez dago eleberrian ez onik ez gaiztorik, egoerek egiten dute bat hobea edo gaiztoagoa. Horixe da liburuaren hutsunerik handiena. Idazleak ez du jarrera edo posturarik azaltzen liburuan zehar.

Xamurra eta azkarra, zentzu batean errealista, nahiz eta zerbait alditan protagonista egoera irrealetan dabilela irudituko zaion bati baino gehiagori. Ironia puntu bat ere aurkituko du irakurleak. Gizarteko topiko asko apurtzen dituena, baina ez gehiago espero. Galdera ugari aurkituko ditu irakurleak, erantzunik apenas ordea.

PERTSONAIA EZKUTUA



Hilabete honetako pertsonaia ezkutua, denok asmatu duzuen bezala, Andoni Imaz billabonatarra da. Errealeko jokalaria da, eta gaztetxo askok idatzi digu pertsonaiaren lanbidea eta herria ongi asko azalduz.

Pertsonaia ezkutua asmatu eta lehiaketa irabazi duena asteasuarra da oraingoan: Ane Zubeldia Irizusta, hain zuzen ere.

Andoingo Alfaro jatetxeak eskainita bi pertsonentzako aforaia jaso du oparizat Anek. Norekin afalduko duen erabakitzeke duen arren, gurasoekin joango da ziurrenik. On egin!

Lerro hauen bidez lehiaketa atalean aldaketa batzuk izango direla adierazi nahi dizuegu. Hemendik aurrera pertsonaia ezkutuaren ordez Beterri-Aiztondo herrietako txokoak agertuko dira "ezkutuan". Zuek, irakurleok, zein txoko den eta zein herrietakoa den azaldu beharko diguzue. Besteen herriak eta gurea hobeto ezagutzeko aukera paregabea izango dugu aurrerantzean. Adi egon eta laister arte!



MUSIKA

ANDOAIN

Maiatzak 30: Usandizaga laukotearen kontzertua. Olagain etxean, arratsaldeko 20:00etan.

Ekainak 1: IX. Haurren Euskal Jaia. Dantzari, trikitilari eta txistulari gazteen emanaldia egun osoan zehar.

Ekainak 8: Gazteri batzordeak antolatuta Drindots taldearen dantzaldia. Bekoplazan arratsaldeko 18:30etatik 21:30etara.

IKUS ENTZUNEZKOAK

ANDOAIN

Ekainak 12: "Gipuzkoako jaiak. Udaberria" ikusentzunezkoa. Andoaingo San Juanak azalduko dira bertan. Kultur etxean, arratsaldeko 19:30etan.

ASTEASU

Ekainak 6: Australia: Urruneko Kulturak.

Ekainak 13: Jesus Mari Irazuren "Urrutiko lurralde eta kulturak: Australia" ikusentzunezkoa. Kultura Etxean, arratsaldeko 20:00etan.

IBILALDIAK

ANDOAIN

Ekainak 7-8: Andoaingo Euskalduna Mendigoizale taldeak antolatuta Arlet eta Txipeta mendietara irteera.

HAURRENTZAKO IBILALDIAK

ANDOAIN

Ekainak 8: Andoaingo Euskalduna Mengigoizale taldeak antolatuta Gipuzkoa mailako finalista eguna.

BESTE

ANDOAIN

Ekainak 10: Andoaingo odol emaileen elkarteak antolatuta, odola aterako dute Andoaingo ambulategian arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara.

ASTEASU

Ekainak 6: Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoan emanaldia.

Ekainak 7: Gazteentzako ziklo-krossa.

Ekainak 7: Oskorriren "25 urte kantuan" musika emanaldia. Oskorri, kukubiltxo eta Kepa Junkera etorriko dira herrira.

TXATXILIPURDI, ARRASATEKO AISI TALDEAREN OHARRA

Arrasateko Txatxilipurdi elkarteak udaleku itxiak antolatuko ditu uztailean Arrasateko eta kanpoko haur eta gazteentzat. Uztaileko udalekuak Garaion, Iparraldean eta kostaldean izango dira. Abuztuan berriz, 16-18 urte bitarteko gazteek Europatik bira egiteko aukera izango dute. Informazio gehiago nahi duzuenok deitu 795446 telefonora eta Goizanegatik galdetu.

MERKATU TXIKIA

Mobil-home salgai. Mobil-home bat saltzen dut bere terraza eta guzti. Errioxako Haro herrian dago. Tfnoa: (943) 7913969 (arratsaldez).

RIKARDO ARREGI HEMEROTEKA

Euskarazko aldizkari zaharrak biltzen ditugu hemerotekako fondoa osatzeko: Anaitasuna, Zeruko Argia, Argia, Goiz Argi, etab. Informazio gehiago Larremendi Bazkuncan (Elixabete Jauregi edo Xabier Lasa), 300733 telefonora deiturik.

OHARRA

Zure iritzia Aiurrin argitaratu nahi baduzu, idatz ezazu 15-20 lerrotako gutuna eta bidali ezazu gure egoitzara. Hori bai, beharrezkoa da zure izen-abizenak, telefonoa eta N.A. zenbakia jartzea.

AIURRI aldizkaria

Huizi doktorea kalea 15-1esk.-20.140 Andoain

KOMIKIA



Euskadiko Kutxaren

VISA IKASTOLAK txartela,

*ez da Visa bat gehiago bakarrik.
Euskararen eta Ikastolen aldeko Visa da!*

Euskadiko Kutxak txartel honekin egiten diren ordainketa guztien ehuneko jakin bat emango die IKASTOLEN ELKARTEARI eta PARTAIDERI. Eta gainera, titular bakoitzarengatik 1.000 pta. eta onuradun bakoitzarengatik 250 pta. emango dizkie urtero.

- Txartelaren prestazioak beste edozein kreditu txartelak dituen berberak dira.
- Txartelaren kuota doan izango da lehenengo urtean.
- VISA IKASTOLAK Txartela eskuratzeko ez daukazu Euskadiko Kutxaren bezero izan beharrik.





CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

GOAZEN JOLASTERA!

Udaleku irekia Andoainen bertan

97



NORENTZAT?: 12 urte bitarteko neskato-mutikoentzat.

NOIZ?: uztail eta abuztuan.

ZER EGINGO DA?: Andoain hobeto ezagutu eta nahiko jolas egin... guztia euskaraz, noski.

MATRIKULA: hileko 4.000 pezeta.



ANDOAININGO UDALA
Euskararen normalkuntzarako
Lansaila




Laguntzaile
Gipuzkoako Foru Aldundia

MATRIKULA EGITEKO AZKEN EGUNA:
EKAINAREN 10A.

NON ETA NOIZ:
ANDOAININGO UDALETXEAN, GOIZEKO
10:30ETATIK EGUERDIKO 12:00ETARA

EZ DUZU OSASUNIK IRABAZIKO



BAINA BAI INFORMAZIO HOBEXEAGOA

Eman ezazu izena AIURRI-n, eta UZTAILETIK AURRERA hamabostean behin jasoko duzu etxean zure herriko berri dakarkizun aldizkaria. Hilero 200 pta. baino ez du bario, bi pintxo, kaina batek, edo bi kafek adina.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen deiturak:

URTE OSOKO HARPIDETZA-SARIA 2 000 PTA.

Helbidea:

Kontu korrontearen zenbakia:

Kodea: Herria:

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia

Lanbidea: Jaiotze data:

Tokia, data eta izenpea:

Etxeko[☐] : Laneko[☐] :

Nora eraman txartel hau: Andoainen, Billabonan eta Asteasun: Gipuzkoa-Donostia Kutzara edo Euskadiko Kutzara. Gainera, Andoainen: Aiurrira bertara edo Delgado, Ernaitza, Ikas-Jolas, Minikost, eta Stop liburudendetara. Billabonan, Kultur etxe edo euskaltegietara eta Basajaun liburudendara. Zizurkilen, Iriarte kultur etxera eta Arregi plazako kultur etxera. Asteasun, Kultur etxera. Adunan, ostatura. Larraulen, herri-ostatura.